

Euskal mitologiaz

Tras la labor del s. XX, la recogida de materiales antropológicos de Euskal Herria permite hoy conocer mejor las mentalidades tradicionales de nuestro pasado; leyendas y cuentos, costumbres rituales y creencias religiosas documentadas contribuyen a ello. También han llegado hasta nosotros mitos vivos de la memoria popular y relatos de carácter simbólico-religioso. El estudio de la mitología vasca ha podido beneficiarse de los trabajos etnográficos del país y de las aportaciones teóricas de investigadores extranjeros, tales como las de la Escuela de Viena (W. Schmidt) o los encuentros Eranos, de Ascona (Suiza).

Jakina denez, XIX. mendeko azken erdian, herrien ohitura zahar eta antzinako erlijiotasunaz ardura-tuek, iragan urrunetara iristeko, artean beren "primitibotasunean" bizi ziren herrien bizitza aztertzeraz jo zuten (Ozeaniara, batez ere), iragan galdu haren gaurko presentziak ikerkuntza lagun zeza-ketelakoan.

Laster, euskaldunok hor ikertzaileen parean aurkitu ginen, batez ere hizkuntza "zaharra" genu-elako eta ohiturak ere "betidanikoak". Euskal tradizioen ikertzaileak, langaiak bildu eta aztertzen hasi ziren, hau da, ipuinak, kantak, erlijiozko usadioak, etab. begiratzen. Horrek gero bere emaitzak eman ditu.

Euskal mitoen bila

Euskal mitologiak "prentsa ona" izan du, eta anitz ikertzaile izan ditu gure artean jakite-eremu honetarako. Argialetxeen katalogoetan betiere presente daude euskal mitologiari buruzko liburuak, eta baita Sareko hainbat ataritan ere orain, nornahiren eskura.

Egindako lanen laburpen gisara J. M. Barandiaranek bere *Mitología vasca* 1960an jarri zuen kalean, eta hamar-hamabi urte gerago bere hiztegi ezaguna argitaratu zigun, euskal mitoen harrobi aberatsa suertatu zaiguna (1972). Harekin paretsuan Azkuek elezaharren bildulana eginda zuen (*Euskal Herriaren Yakintza*). Euskal Herrian ere, ipuin miresgarriak eta konta-

kizun mitikoak elkarrekin zebiltzan herritar sinestunen buru-ahotan, mundu errealarari bere nondik norakoa argitu nahirik.

Ikerlan horiei esker, Barandiaran bera eta ikertzaile gazteagoak etorri dira langai mitologiko horiek ulertu eta azaltzera, batzuetan hedapen lana egiteko eta bestetan kanpoan landutako teoria orokorrak baliatuz gure mitologia aztertzeko. A. Erkorekak eman zigun euskal Antropologiaren alorretik mitologiagaz egindako azterlanen albiste orokorra (1988).

Bereziki gogoan hartzekoak dira, egindakoak eta egitekoak ere, kasu honetan, bidean datozelako: Etniker-en lan etnografiko erraldoiak, Eusko Ikaskuntzaren argitalpenak (Zainak kaierrak tarteko) eta Unibertsitateetako lanak (JM. Apalategi, A. Arana, J. I. Hartsuaga), R. Jimeno Aranguren-en gida bibliografikoa ahaztu gabe (1999). Horieta zena zenbaitek Antropologia orokorretik Mitologiara jauzi egiteko aukera eskaintzen digu.

Gauzak horrela, ez dakit ondoko lanek sortu ahal izan duten G. Bähr legazpiarrak gehiegi espero ez zuen "euskal mitologiaren sistema oso bat" (1931); baina, nolana ere, XX. mendean euskal mitologiagaz egindako bilketa-lana garrantzizkoa izan da, hain zuzen dena desagertzera zihoan unean.

Zer esan euskal mitologiaz?

Milaka urteko iragana du "euskal mitologia" deitu



© Euskal Museoa – Bilbao – Museo Vasco

ohi denak. Neolitotik eta geroztik bildutako kultur geruza ezberdinak gehituz joan zaizkionak bere egin ditu. Baina horrek guztiak ez du izan dena gogoan hartuta batasun literarioa eman dion poeta edo mitologorik, Grezian Homerok eta Hesiodok egin zuten bezala, Erroman Virgilio edo Ovidio-ren gisara, edo Finlandian Lönnrot-ek *Kalevala* poeman egin zuenaren antzera.

Zaila da "jatorrizko" euskal mitologia zein izan zen baieztatzea, eta gaur egun non dagoen antzematea, mendeetan zehar aldatuz, egokituz eta moldatuz joan baita berori, batzutan bere baitatik premia berriei erantzuteko, bestetan kanpotik zetozen edo nagusitzen ari ziren balio berriak bereganatzeko. Euskal mitologiaren hau historia bizia da, beraz.

Gure egunak arte iritsi da garai bateko "jentilen" oroitzapena, kristautasunaren, indoeuroparren edo Neolitoko berrikuntzen aurreko eta ondoko ez-kristauen istorioak kontaktu izan dituen. Kultur garai bakoitzak izan zuen bere mitologia, bere sinesgai, balio sozial eta jarrera erlijiosoenekin: garaian garaiko sistema erlijioso-soziala osatu zen horrela.

Gustatuko litzaiguke, noski, aro bakoitzeko historia mitologikoa bere osoan eta batasunean ezagutzea; baina gertatutakoa nahiko lauso ageri zaigu: alde batetik, informazio datatuak falta zaizkigulako, eta bestetik, aro berri bakoitza aurrekoaren itzalean sortu/sartu zelako eta ondoko berriari bere hainbat osagarri pasatu zizkiolako, denak ere elkarren gain batasun berri bat osatuz.

Guganaino iritsi diren sineste eta ohitura anitz, herrian sarritan hain bizi iraun dutenak, kristautasunaren aurrekoak dira, batzuetan Elizak baztertuak edo baztertu nahi izan dituenak eta ez gutxitan eliz errituekin elkarturik indarrean daudenak. Honetan ere, kristautzea ez da izan inkulturaziorik gabeko aldaera.

Euskal mitologian ez da erraza jainko jentilen multzoa modu argi eta bakarrean eratzea, Erroman Jupiter eta lagunekin egin ohi denaren gisara, bakoitzak bere historia mitikoa duela eta guztiak hierarkia baten barruan elkartuta; baina zerbait esan daiteke horretaz, betiere aipatutako azken orduko kontakizunen bilketak erakusten duenaren arabera.

Badirudi *Ama Lurra* izan zela, azkenean, jatorrizko gure jainkosa gorena, kasuan kasurako Mari-ren irudipean ere han eta hemen aurki zitekeena. Ama Lur-ek bi seme-alaba izan zituen, Eguzki eta Ilargi, eta hirurok Ortziren zeru izartsurekin batera osatzen zuten unibertsoa. Baina jainko handien ondoan (Grezia edo Erroman gertatu ohi zenaren antzera), eguneroko gogoei gertuagotik erantzuteko, bigarren mailako jainko txiki, basajaun, basandere, jeinu, iratxo eta lamiekin osatu zen gero gure mitologia.

Euskal mitologiako "jeinu" ezagunena (horrela aipatu izan du Barandiaranek) *Mari* da, antzina-ko denboretan hainbat agerpen eta lan egin zituena (ekaitzak ekartzen zituen, edo trikuharrak jaso, esate baterako), euskal lurraldean han eta hemen bere bizilekuak izan zituena, eta tokian tokiko sinestunentzat hurbiltasun handikoa.

Arantzazuko oroitzapenetan ere bizirik ageri da Mari, batzuetan Anboton eta bestetan Aloña nahiz Aketegin, eta horietan bezala nonahi kasik haitzulo eta leizetan bizi eta hamaika izaera ezberdinetan ikusi izan zen. Gero, Arantzazuko elezaharretan Andre Mariari buruz kontakutako ziren ibileren antzera.

Sinesgai hauek biziraupen luzea izan dute, baita sinestun kristauen artean ere, aldi berean sinesten baitziren kristau bataiatuen fede-gaiak eta beste sinesgai jentil hauek.

Joseba Intxausti